

## BAZKOKO LAUGARREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

( *Ez dugu Kristoz beste salbatzailerik,* )

**Apostoluen Egintzetarik 4, 8-12**

- 8 **Izraelgo biltzar handiaren aitzinean,  
Petrik, Izpiritu Sainduaz beterik, erran zuen:**  
“ **Herriko buruzagi eta zaharrak, gaur,**  
9 **eri bati egin ongi az, nola sendatu den galdatzen zaiku.**  
10 **Jakizue beraz, denek, eta Izrael herri osoak:**  
**zuek gurutzefikatu eta Jainkoak hilen artetik piztu duen**  
**Jesu Kristo Nazaretarraren izenari esker**  
**duzue gizon hau zuen aitzinean sendaturik.**  
11 **Jesus hau da zuek, etxegileek, baztertu duzuen harria,**  
**giltzarri bilakatu dena.**  
12 **Hunen baitan bakarrik dugu salbamendua.**  
**Eta ez zaiku zerupean gizoneri beste izenik eman,**  
**gu salba gaitzakeenik.”**

Hemen kondatzen dena Jerusalemeko tenpluan gertatu zen, Petrik maingu bat sendatu zuelarik. Juduek entzuten dute Petri erraiten, kurutzefikatu duten Jesus piztuak sendatu duela eria, apostoluen bidez.

Petriren mintzaldiak zenbait konbertitu zituen bainan aintzek ez zuten preziatu, zeren Jesus hilarazi zutenek ez baitzuten gehiago entzun nahi hartaz mintzaten. Lukek kondatzen du : « *Petri eta Joani herriari mintzo zirela, apezak, tenpluko goardien buruzagia eta saduzearrak agertu zitzaizkioten. Nardatuak ziren, apostoluak irakasten ari zirelako herriari eta Jesusen baitan hilen piztea mezutzen zutelakotz. Beraz, arrastatu eta presondegian sartu zituzten biharamuna arte, beranta baitzen...Biharamunean, herriko buruzagi, zahar eta lege-ikasleak Jerusalemen bildu ziren ; han ziren Anas apez nagusia, Kaifas, Joanes, Alexandro eta apez buru familietako guziak. Petri eta Joani beren aitzinerat ekarrarazi eta galdatu zieten : « Zer indarrez edo noren izenaz egin duzue hori ? »*

Petrik bazakien galdera horren larritasuna, zeren Testamendu Zaharra guduka ari izan baita beti Jainkoaren izena gaizki erabiltzearen kontra, hala nola sorginkeria edo idolatria, eta Jainkoaren izena gaizki erabiltzen zuena harrikatua zen. Hortakotz, Petrik Jesusen izena erabiltzen du Jainkoa bera adiarazteko.

Lukek erraiten dauku Petri Izpiritu Sainduaz betea zela, eta beraz haren hitzak egiak. Petri galdegiten zaio : « *Noren izenaz egin duzue hori ?* » Petriren errepostua : « *Eri bati egin zaion ongia, nolaz sendatu zen galdatzen zaiku gaur. Jakin behar duzue denek eta Israel herri osoak ere, zuek gurutzitzatu eta Jainkoak hiletarik piztu duen Jesu Kristo Nazareterren izenaz dago gizon hau zuen aitzinean sendaturik...Hunen baitan bakarrik dugu salbamendua... » Petrik, hitz horiek, finki erraiten ditu !*

Jesusez mintzo delarik, « *Salbatzailea* » deitzen du, Jainkoari bakarrik emaiten zitzaion izena. Huna Oze profetak zer zion : « *Ni, Jauna, zure Jainkoa naiz Egipton zinaudenetik. Ez duzu nitaz beste Jainkorik ez eta nitaz beste salbatzailerik* » Eta Izaik : « *Ni naiz Jainkoa eta ez da besterik, Jainko garaile eta salbatzailerik ez da nitaz besterik.* »

Lehenik, Petrik erraitea Jesus Jainko dela, eskandalgarri zen, eta gainera erran zezan : « *Eta ez zaiku zerupean gizoneri beste izenik eman gu salba gaitzakeenik* » izariz kanpoko ahapaldia zen.

Jupeak durduzatuak dira. Alde batetik, denek ezagutzen duten eria sendatua izan da. Bestetik kultura gabeko gizonak ziren Petri eta haren lagunak. Ikusirik heien ausartzia, jupeak erreposturik eman gabe egon ziren : «*Zer egin gizon horiekin ? Zeren, ageri-ageriko mirakuilua egin dute : ongi badaki hori Jerusalem osoak, eta ez dugu ukatzen ahal. Bainan, herrian hori gehiago zabal ez dadin, mehatxatuko ditugu, Jesusen izena gehiago nehoi aipa ez dezaten.* »

Nehork ez ditu, nihun ez sekulan ixilarazi. Jesusek, itzali aitzin, errana zioten : «*Gainerat jautsiko zauzuen Izpiritu Sainduaren indarra ukanen duzue eta ene lekuko agertuko zirezte Jerusalem, Judea guzian eta lurraren bazterretaraino.* »

## Salmoa 117

**Leloa:** *Egilek utzi harri hori, Egin du Jaunak ezkin-harri.*

**Jaunari kanta, ona baita,  
Amodioa betiko baitu betikoa!  
Jainkozaleek, gora kanta:  
Amodioa betiko baitu betikoa!**

**Zenbatez hobe Jauna baitan  
Bere fidantza gizonen baitan eman baino.  
Zenbatez hobe Jauna baitan  
Bere fidantza jaun handietan eman baino..**

**Egilek utzi harri hori  
Bilakatu da denak datxizkan ezkin-harri.  
Jainko Jaunak du hau egina  
Gure begien, gure bihotzen miragarri.**

**Zu zaitut Jainko, kantuz nago:  
Zuri esker on, goresmen eta laudorio!  
Jaunari kanta, ona baita:  
Amodioa betikoa du, betikoa!**

Bazko ondoko igandetean, 117. Salmoa irakurtzen dugu.

Salmo huntako lehen eta azken bertsetak berak dira: «*Goretsazue Jauna, ona baita, amodioa betikoa du, betikoa.* » Salmo guzia laburbiltzen dute, bai eta ere izraelen esperientzia guzia : Jainkoa maitasun da, Jainkoa leiala da.

Salmo huntan irakurtzen ditugu ere hitz berezi batzu, menturaz osoki ulertzen ez ditugunak, Pasione aitzin Jesusek berak erranak: «*Etxegileek arbuiatu harria giltzarri bilakatu da, Jaunak egin du hori gure begien miresgarri.* » Jesusek hori erran zuen apez-nausiekilako eztabada batean. Kondatu zioten mahastizainaren parabola : «*Etxeko Jaun batek mahastia landatu zuen, hesiz inguratu, lurrean dolarea egin, dorre bat eraiki.* » Entzuleek xehetasun horiek konprenitzen zituzten. Mahastiaren jabea Jainkoa da. Izaik parabola hori bera kondatua zuen zenbait mende lehenago : jabea arranguratzen da, arta handia emanik ere, mahastiak ez duela gauza handirik emaiten. Jesusek parabola luzatzen du : jabeak mahastia gomendatu zuen mahastizaineri, eta bera, pidaiaz joan. Mahats-biltzeko sasoina jin zelarrik, igorri zituen mutilak bere mozkinaren galdegiterat : lehena joka hil zuten, hilarazi ere bigarrena, harrikatu hirugarrena. Nausiak beste mutil batzu igorri zituen orduan. Gauza bera gertatu zitzaioten. Azkenean bere Semea igorri zuen, pentsatuz hura bederen errespetatuko zutela. Mahastizainek hilarazi zuten hura ere, jabearen semea zelakotz.

Parabola bururatzean Jesusek galdera bat egiten diote entzuleeri : Zuen ustez zer egingen du mahastiaren jabeak ? Mahastizaineri egingen diote heiek besteeri egin zietena, eta mahastia, zaintzerat beste batzuri emanen diote. Orduan, Jesusek erraiten diote : « *Horren gatik diozuet, Jainkoaren erresuma zueri kendu eta fruitua ateratuko duen herri bati emanen zaio. Harri horren gainerat eroriko dena hautsiko da, eta harria gainerat eroriko zaiona, harek lehertuko du.* » Izkin harri hori bi ahotakoa da : batzuentzat, baliosa, haren gainean bermatzeko, eta bertzentzat, aldiz, lazgarria.

Bibliak maiz erakusten dauku, bizian bi bide badirela, Jainkoarena, eta haren kontrakoa. Bide batek beti norabait eremaiten gaitu. Jondoni Joanik erraiten du Jesusen baitan sinesten duena, bakean, argian, Jainkoaren ezagutzan handitzen dela ; errefutsatzen duena ezazolkeriaz, itsutasunean sartzen dela.

## **Bigarren irakurgaia**

*( Maitasunez, Jainkoak bere haur egin gaitu )*

### **Jondoni Joaniren lehen epixtolatik 3,1-2**

**Maite maiteak,**

- 1 ikusazue zenbaterainoko maitasuna agertu daukun Aitak, Jainkoaren haur izena eman baitauku, eta hala gira. Huna zergatik ez gaituen munduak ezagutzen: Jainkoa ere ez baitu ezagutu.**
- 2 Maite maiteak, orai Jainkoaren haurrak gira, bainan zer izanen giren ez da oraino agertua. Badakigu: Jainkoaren Semea agertuko denean, haren iduriko izanen girela, den bezala ikusiko baitugu.**

Jesusek apostoluak abisatuak zituen ez zirela nausia baino hobeki tratatuak izanen : « *Munduak hastio bazaituzte, jakizue zuek baino lehen hastiatu nautela. Mundukoak bazinete, munduak maite zintuzkete, bereak bezala ; bainan ez zirezte mundukoak : nik hautatu eta mundutik berexi zaituztet, horra zertako munduak hastio zaituzten. Orroït erran nauzuenaz : mutila ez da nagusia baino gehiago.Ni pertsegitu banaute zuek ere pertsegituko zaituztete...Nere gatik erabiliko zaituztete hola, igorri nauena ezagutzen ez dutelakotz.* »

Jesusen eta munduaren arteko harremanak bereziak dira (Jn 15, 18-21), eta berdin girixtinoaren eta munduaren artekoak, zeren Jesus jin baita munduaren salbatzeko, eta bestalde, Jesus, ez eta dizipuluak, ez baitira « mundukoak ». Hortakotz dira ezinikusiak eta pertsekutatuak.

Lehenik Jesus munduaren salbatzera jina da, eta Jainkoaren ezagutaraztera. Entzun dugu Pasiene denboran Jesusek Pilatori egin zion errepostua : « *Ni sortu eta mundurat etorri naiz egiaren lekuko izan nadin* » eta Jainkoak nahi du mundua salbatu, maite duelakotz : « *Alabainan, Jainkoak hain maite ukan du mundua, non bere Seme bakarra eman baitu, haren baitan sinesten duenik nehor gal ez dadin, baizik betiereko bizia ukan dezan. Zeren Jainkoak ez baitu mundurat Semea igorri munduaren kondenatzeko, haren bidez munduaren salbatzeko bai.* » Joanesek segitzen du gutun huntan erranez: « *Hara nola agertu den Jainkoaren gure ganako maitasuna : Jainkoak bere Seme bakarra mundurat igorri du, haren bidez bizia ukan dezagun.* » Bere otoitzean, azken gauan, bere gutizia erraiten du: « *Hola munduak sinetsiko du zuk igorri nauzula. Zuk eman dautazun aintza bera eman diotet nik, bat izan daitezen, gu biak bat giren bezala.* » ( Jn 17,23) Badakigu, horrela, Jainkoak mundua maite duela eta haren salbamendua nahi duela.

San Agustinek erraiten zuen : « *Heda zure karitatea mundu guzian, nahi baduzu Jesu Kristo maitatu, zeren Kristoren menbroak mundu osoaren gainean hedatuak baitira...Kristok maite du bere gorputza.* » eta Teilhard de Chardin jesuitak, erraiten zuen : « *Maite duguna baizik ez dugu konbertitzen.* »

Bainan norbaiten maitatzea ez da beti harekin akort izaitea, eta munduaren maitatzea izanen da artetan hari gogor egitea. Joanirentzat « mundua » orduan Jainkoari bizkarrez itzultzea da : « *Munduan zen eta mundua haren bidez egina izanagatik, mundukoek ez dute ezagutu .* » (Jn 1,10) Sentsu hortan Jesusek dio : « *Ez maita mundua, ez eta munduko gauzak ere. Mundua maite duenak ez du bere baitan Aitaren ganako maitasunik. Alabainan, munduan den guzia : gutizia tzarrak, begietarik sartzen den gutizia eta aberastasunen harrokeria, ez dator Aitarenganik.* » Bainan Jesusek erran du ere : « *Munduan ukanen duzue atsegabe ; bainan gora bihotzak !Mundua garaitua dut.* »

Horrek erran nahi du, azkenean, munduak onartuko eta sinetsiko duelarik Jainkoaren amodioan, gizon guziak anai gisa biziko direla, zeren hori baita Jainkoaren azken gutizia. Sinesten duteneri eta ez duteneri, deneri Jainkoak emaiten diote bere amodioa.

« *Aitaren ezagutzea* », Joanik erraiten duen bezala, Aitaren amodioaren ezagutzea da, haren maitasuna eta urrikalmendua onartzea. Guri da, ezagutzen ez duteneri haren amodioaren ezagutaraztea, gizadi guzia izan dadin aldatua haren idurirat. Samaritar emazteari erran ziona hobeki ulertzen dugu : « *Bazinaki Jainkoaren dohaina !* »

## Ebanjelioa

### *Alleluia, alleluia*

**Jesus artzain onak bere ardiak ezagutzen ditu,  
eta ardiek ezagutzen dute, heientzat bere bizia emaiten baitu.**

## **Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 10,11-18**

- Jesusek erran zion jendeari:**
- 11** “ Ni naiz artzain ona.  
Artzain onak bere bizia emaiten du ardientzat.
- 12** Saritan den artzaina, aldiz, ez da artzaina, ardiak ez baititu bereak:  
otsoa heldu ikustean, ardiak utzi eta ihes egiten du;  
otsoak ardiak harrapatzen ditu eta barreiatzen.
- 13** Alabainan, mutilari lan-saria zaio axola, eta ez ardiak.
- 14** Ni naiz artzain ona;  
ezagutzen ditut nere ardiak, eta nere ardiek ezagutzen naute,
- 15** Aitak ni ezagutzen nauen, eta nik Aita ezagutzen dutan bezala;  
eta nere bizia emaiten dut nere ardientzat.
- 16** Baditut artegi huntakoak ez diren beste ardi batzu;  
heiek ere erabili behar ditut.  
Nere mintzoa entzunen dute,  
eta artalde bakarra izanen dira, artzain bakarrarekin.
- 17** Horrengatik maite nau Aitak, nere bizia emaiten baitut,  
gero berriz hartzeko.
- 18** Nehork ez daut bizia kentzen, nere nahitarat emaiten dut.  
Nere esku dut emaita, eta nere esku berriz hartzea:  
hori da nere Aitarenganik ukan dutan manua.”

Jesusen denboran artalde ainitz bazen eta Jesus arduratzen mintzatu da artzainaz eta artaldeaz.

Aberastasun handiena denbora hetan artaldea zen : « *Uz herrialdean bazen gizon bat deitua Job, xuxena zen, Jainkoaren beldurra bazuen eta gaizkitik urrun zagon. Bazituen zazpi seme eta hiru alaba. Zazpi mila ardiren jabe zen, hiru mila gamehu, bost ehun idi pare, bost ehun astaña, ainitz mutil eta neskato. Eguzkialdeko gizonik aberatsena zen.* » Abrahamez Liburu Sainduak erraiten du : « *Biziki aberatsa zen Abram, abere, zilar eta urrez.* » (Has 13,2)

Lehenbiziko oharra : artaldearen ukaitea onartua bada aberastasuna dela, beraz pentsa dezakegu Jainkoaren aberastasuna girela. Ardura Jainkoa konparatua da artzainari eta Izraeleko populua artaldeari. Salmotan hau irakurtzen dugu: « *Jauna dut artzain, ez naiz deuseren beharretan* (Sal 22)...eta « *Israelen artzain, entzun zazu, zure herria artaldea bezala deramazu.* » (Sal 79)

Ardura ere artzaintza Egiptotikako Jalgitzari datxiko. Jainkoa da bakarrik mintzatzen ahal populuaz. Hari esker da herria libratu : « *Hura da gure Jainkoa, eta gu harek alhatzen duen herria, harek gidatzen duen artaldea.* » (Sal 94)

Jainkoak buruzagiaren eskuetan emaiten du artaldea, eta erregeak artzaineri konparatuak dira . Artzainak zintzoa izan behar du, artaldea zaintzen duena, makilaz etsaiak urrun atxikitzen dituena. Badakigu ere, errege-makila, artzainaren makila dela. 1750 J.K. aitzin Hammourabi Babiloneko erregeak artzain bati konparatzen du bere burua eta erraiten zuen : « *Salbatzen duen artzaina naiz eta ene errege-makila justoa da.* »

Bainan, zorigaitzez, Izraeleko erregeak ez dira beti Jainkoari leial izan. Artaldea zaintzeko orde, beren burueri pentsatu dute, beren handitasunari, nola aberastuko ziren. Beraz, Justiziaren orde zuzengabekeria hedatu da. Profetek oihi egiten zuten, erranez : « *Zorigaitz beren buruak alhatzen dituzten Israelgo artzaineri ! Ez ote da artaldea artzainek alhatu behar dutena ?* » (Ez 34,2)

Etsituak izanik ere, herriak esperantza bizirik dauka, Jainkoa bera delakotz egiazko artzain leiala. Herria, beti, ametsetako erregearen beha dago, Jainkoari leial egonen zaiona. Jainkoaz Ezekielek bere liburuan erraiten du: « *Ardi galduaren bila joanen naiz, desbideratua artalderat ekarriko dut, zango hautsia lotuko, eria azkartuko.* » (Ez 34,16) Jesusek bere buruaz erraiten duelarik : « *Ni naiz Artzain ona* », erran nahi du : ni naiz Mesias, salbatzailea, igurikatzen duzuen. Geroago, girixtinoek ulertuko dute Ezekiel profetak oraino asmatzen ahal ez zuena : Jesus, Jainkoaren Semea dela. Mesias ez zitekeen izan bakarrik Jainkoaren zerbitzari, bainan Jainkoaren Semea. Haren errege-makila gurutzea da : « *Lurretik altxatuko nautelarik, ene ganat bilduko ditut denak.* »